

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZKOITIKO UDALA

Iragarkia

2020ko otsailaren 26ko Udalbatza Osoak, beste batzuen artean, honako akordioak onartu zituen:

Lehena. Azkoitiko udalerrian kokaturiko ikastetxeetako ikasleei logopediako udal zerbitzua eskaintzea, zerbitzuaren prestazioa arautuko duen Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako udalen arteko Lankidetzaz Hitzarmena onartuz, ondoren zehazten den testuaren arabera.

Lehena. Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako udalen arteko lankidetzaz esparru bat ezartzea, beren udalerrietan kokatutako ikastetxe ezberdinetako ikasleei logopedia zerbitzua eskaini ahal izateko.

Bigarrena. Zerbitzuaren kontratazioaren ardura.

Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako udaletako ordezkariak, hitzarmen honen bitartez, hiru udalerrietan kokaturiko ikastetxeetako ikasleei logopedia zerbitzua kontratatzeke enkargua Azkoitiko udalari egiten zaio. Hortaz, Azpeitiko eta Zestoako Udalek ahalmena ematen diote Azkoitiko Udalari, egun indarrean dagoen kontratazioa kudea dezan, hortik eratorzen diren egintza guztiak barne (fakturazioari lotutakoak) eta bere kasuan, hitzarmen honen indarraldian aurrera eraman beharreko beste kontratazio espediente bat burutu dezan zerbitzua kontratatzeke.

2020ko urtarrilaren 20ko datan sinatu da zerbitzuari dagokion kontratua 2 urterako, urtez urte beste bi urtez luzagarria delarik. Hitzarmen honen indarraldia amaitu aurretik kontratu hori amaituko balitz, edozein arrazoi dela medio, Azkoitiko Udalari ezartzen zaio lizitazio berria izapidetzako ardura.

Horretarako, hitzarmen honetan arautzen den Jarraipen Bazarordeak, urtero, honako hauek xedatuko ditu:

— Logopedia Zerbitzuaren ezaugarri nagusiak: zerbitzuaren deskribapena, hartzailerek bete beharreko baldintzak, profesionalak bete beharreko baldintzak, hobetzeko proposamenak etab.

— Logopedia Zerbitzuaren gehieneko kostea, eta hori ordaintzeko irizpideak, hitzarmen honetan xedatutakoaren arabera.

— Familien ekarpenak.

— Zerbitzua kontratatzeke beharrezkoak diren gainontzeko elementuak.

Beste kontratu bat izapidetu eta sinatzea beharrezkoa izango balitz, kontratazio jardunbidea garatu ondoren, kontratuaren esleipena udal bakoitzaren organo eskudunaren ebazpenaren bitartez gauzatuko da. Ondoren, kontratu bakarra izenpetuko dute hiru udalen ordezkariak eta esleipenduna suertatzen den lizitatzailerek.

Klausula honetan xedaturikoa, era txandatuan gauzatuko dute hitzarmena izenpetzen duten udalek, beraiek adosturiko ordena eta iraupenaren arabera.

AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Anuncio

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 26 de febrero de 2020, entre otros, aprobó los siguientes acuerdos:

Primero. Ofrecer el servicio municipal de logopedia a los escolares de los centros educativos radicados en el municipio de Azkoitia, mediante la aprobación del Convenio de colaboración firmado entre los Ayuntamientos de Azkoitia, Azpeitia y Zestoa que regulará la prestación del servicio, según el texto que se detalla a continuación.

Primero. Objeto.

El objeto del presente convenio es establecer un marco de colaboración entre los Ayuntamientos de Azpeitia, Azkoitia y Zestoa para la prestación del servicio de logopedia al alumnado de los diferentes centros ubicados en sus respectivos municipios.

Segundo. Responsable de la contratación del servicio.

Los representantes de los Ayuntamientos de Azpeitia, Azkoitia y Zestoa, mediante el presente convenio, encargan al Ayuntamiento de Azkoitia la contratación del servicio de logopedia para los escolares de los centros ubicados en los tres municipios. En consecuencia, los Ayuntamientos de Azpeitia y Zestoa facultan al Ayuntamiento de Azkoitia para que gestione la contratación actualmente en vigor, incluidos todos los actos derivados de la misma (relacionados con la facturación) y, en su caso, para que elabore un nuevo expediente de contratación que deberá ejecutarse durante la vigencia del convenio vigente.

Con fecha 20 de enero de 2020 se ha suscrito el contrato correspondiente al servicio por un periodo de 2 años, prorrogables anualmente por otros dos. Si dicho contrato finalizara antes del vencimiento del presente Convenio, por cualquier causa, el Ayuntamiento de Azkoitia será el encargado de tramitar la nueva licitación.

A tal efecto, la Comisión de Seguimiento regulada en el presente Convenio establecerá anualmente:

— Características principales del Servicio de Logopedia: descripción del servicio, requisitos a cumplir por los usuarios, requisitos a cumplir por los profesionales, propuestas de mejora, etc.

— El coste máximo del Servicio de Logopedia y los criterios para su abono, de acuerdo con lo dispuesto en el presente Convenio.

— Aportaciones de las familias.

— Resto de elementos necesarios para la contratación del servicio.

Si fuera necesario tramitar y suscribir un nuevo contrato, una vez desarrollado el procedimiento de contratación, la adjudicación del contrato se realizará mediante resolución del órgano competente de cada ayuntamiento. Posteriormente, se suscribirá un único contrato entre los representantes de los tres Ayuntamientos y el licitador adjudicatario.

Lo dispuesto en esta cláusula se llevará a cabo de forma rotativa por los Ayuntamientos firmantes del convenio, en el orden y duración que estos acuerden.

Hirugarrena. Kontratuaren exekuzioa, zuzendaritza eta ikuskapen teknikoa

Logopedia Zerbitzuaren kontratutik erator daitezkeen arazo, interpretazio, aldataketak, eta, bere kasuan, deuseztapena, udal bakoitzaren organo eskudunak ebatzi behar du, Jarraipen Batzordearen proposamena entzun ondoren. Ebazpen hauek kontratazioa izapidetu duen udaleko zerbitzuek bideratuko dituzte.

Halaber, Jarraipen Batzordearen arduraz izango dira zerbitzuaren jarraipena eta ikuskapen teknikoa gauzatzea, halaber zerbitzuaren prestazioari buruzko proposamenak aurkeztea.

Laugarrena. Hitzarmenaren jarraipen batzordea.

Jarraipen Batzordea eratuko da eta hor egongo dira hiru udaletako bi ordezkari: Alkate-udal burua edo berak izendutako ordezeko zinegotzia, eta Hezkuntza gaietarako Teknikari arduraduna edo bere ordezkaria. Halaber, Batzordeak egiten dituen bilertan zerbitzuaren koordinazioa burutzen ari den udalaren Idazkariak parte hartuko du, fede publikoa emateko.

Organo horrek bere kideen gehiengoaren bidez hartuko ditu erabakiak, eta gutxienez urtean behin bilduko da.

Azkoitiko udalak kontratuaren araudia zehatz betetzen dela bermatzeko ahalmena du, batez ere aurrekontuari, lanen egitarauari eta baldintzen pleguei arreta berezia emango die.

Jarraipen Batzordeari, berriz, zeregin hauek dagozkie:

- a) Logopedia zerbitzu berria lizitatu aurretik, bere ezaugarri nagusiak, finantzazio baldintzak eta kontratuaren gainontzeko elementuei buruzko proposamenak egin.
- b) Administrazio pleguak eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu, bere irizpideak lotesleak izango direlarik. Hamabost eguneko epea izango du iradokizunak egiteko.
- c) Azkoitiko udaleko kontratazio organoak kasuan kasuko zerbitzu-kontratuaren adjudikazioa proposatu aurretik, Kontratazio Mahaia edo kontratazio-organoko eskatu dezakeen txosten teknikoaren berri izatea.
- d) Kontratuaren exekuzioan zehar, aldatetak, interpretazioak, edo bere kasuan, deuseztapenari buruzko proposamenak aurkeztea edo informatzea.
- e) Azkoitiko udalak onetsitako zerbitzu-ziurtagirien berri izatea, eta zerbitzuaren urteko txostenaren berri izatea.
- f) Zerbitzua emateagatik hiru udalek onartu behar dituzten tasak proposatzea, ordenantza fiskalak onartu aurretik. Halaber, zein jarduketa finantzatuko diren eta horretarako alderdi bakoitzak zein portzentaje ekonomiko ordainduko duen proposatuko ahal izango du. Hori guztia, hitzarmen honetako gainerako klausulak kontuan izanik.
- g) Hitzarmenean ezarritako gainerako zereginak eta, oro har, hitzarmenari edo kontratuen gainerako legeriari dagozkien bestelako kontuak koordinatzea eta haietaz informatzea, baldin eta batzordeko kideen ustez beharrezkoa bada, edo hitzarmeneko alderdietako batek proposatzen badu.
- h) Beharrezkoa izango da Jarraipen Batzordearen idatzizko akordioa zerbitzuen prestazioak aldatzeko, zerbitzu osagarriak ematea erabakitzeko edo kitapenak onartzeko, horiek hasieraz aurreikusitako gastuaren % 20ko igoera ekartzen badute.

Bosgarrena. Informatzeko betebeharra

Hitzarmen hau betetzean sortzen diren administrazioko tramite guztiak garatzeari eta betetzeari buruzko informazioa emango dio dagokion udalak Jarraipen Batzordeari, organo honek egiten duen hurrengo bilkuran.

Tercero. Ejecución, dirección e inspección técnica del contrato

Los problemas, interpretaciones, modificaciones y, en su caso, la anulación que pueda derivarse del contrato del Servicio de Logopedia, deben ser resueltos por el órgano competente de cada ayuntamiento, tras escuchar la propuesta de la Comisión de Seguimiento. Las presentes resoluciones serán tramitadas por los servicios del Ayuntamiento tramitador de la contratación.

Asimismo, corresponderá a la Comisión de Seguimiento el seguimiento e inspección técnica del servicio, así como la presentación de propuestas sobre la prestación del mismo.

Cuarto. Comisión de seguimiento del convenio.

Se constituirá una Comisión de Seguimiento en la que estarán presentes dos representantes de los tres ayuntamientos: Alcalde-Presidente o concejal/a suplente que designe, y técnico/a responsable de Educación o persona suplente. Asimismo, en las reuniones que celebre la Comisión participará el Secretario/a del Ayuntamiento que se ocupe de la coordinación del servicio, para dar fe pública.

Este órgano adoptará sus acuerdos por mayoría de sus miembros y se reunirá, al menos, una vez al año.

El Ayuntamiento de Azkoitia está facultado para garantizar el cumplimiento estricto de la normativa del contrato, prestando especial atención al presupuesto, programa de trabajo y pliegos de condiciones.

A la Comisión de Seguimiento le corresponden las siguientes funciones:

- a) Realizar propuestas sobre sus principales características, condiciones de financiación y demás elementos del contrato antes de licitar el nuevo servicio de logopedia.
- b) Examinar los pliegos administrativos y el Pliego de Prescripciones Técnicas, cuyos criterios serán vinculantes. Tendrá un plazo de quince días para formular sugerencias.
- c) Conocer el informe técnico que pueda solicitar la Mesa de Contratación o el órgano de contratación antes de proponer la adjudicación del correspondiente contrato de servicios por el órgano de contratación del Ayuntamiento de Azkoitia.
- d) Presentar o informar durante la ejecución del contrato las modificaciones, interpretaciones o, en su caso, propuestas de nulidad.
- e) Conocer las certificaciones de servicio aprobadas por el Ayuntamiento de Azkoitia, así como el informe anual del servicio.
- f) Proponer las tasas que deben aprobar los tres ayuntamientos por la prestación del servicio, con carácter previo a la aprobación de las ordenanzas fiscales. Asimismo, podrá proponer qué actuaciones se financiarán y qué porcentaje económico abonará cada una de las partes para ello. Todo ello, teniendo en cuenta el resto de cláusulas del presente convenio.
- g) Coordinar e informar del resto de tareas establecidas en el convenio y, en general, aquellas otras que afecten al mismo o a la legislación de contratos, siempre que a juicio de los miembros de la comisión sea necesario, o a propuesta de alguna de las partes del convenio.
- h) Será necesario el acuerdo por escrito de la Comisión de Seguimiento para modificar las prestaciones de servicios, acordar la prestación de servicios complementarios o aprobar liquidaciones que supongan un incremento de más del 20 % sobre el gasto inicialmente previsto.

Quinto. Deber de información

El Ayuntamiento correspondiente informará a la Comisión de Seguimiento del desarrollo y cumplimiento de todos los trámites administrativos que se deriven del cumplimiento del presente Convenio, en la siguiente sesión que celebre este órgano.

Seigarrena. Ekarpenen kalkulua eta ordainketa

Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako udalek finantzatu dute logopedia zerbitzua udal bakoitzak egiten duen diru-ekarpenekin, klausula honetan xedatutakoaren arabera.

Bestaldetik, zerbitzu hau finantzatu ahal izateko, udal bakoitzak tasa bat ezarriko die erabiltzaileei, dagokion ordenantza fiskalaren bitartez. Tasaren kopurua era adostuan finkatuko dute hitzarmen hau izenpetzen duten udalek, eta hiru udalerrietan berdina izango da.

Zerbitzuaren finantzazioari buruz, honako hau adostu dute hiru udalek: Logopedia zerbitzua kontratatu duen udalak, zerbitzua eskaintzeagatik hileroko ordainagiria jaso bezain laster, gainontzeko udalei igorriko die beraien zerbitzu teknikoek in-forma dezaten, horretarako hamaburu eguneko epea izango dutelarik. Ondoren, hileroko ordainagiria ordainduko du udal arduradunak, beti ere sektore publikoko kontratazioa arautzen duen legeriak xedaturiko epea kontutan harturik.

Udalen ekarpenak honako era honetan gauzatu dira: Udal arduradunak hiru hilabetetik behin dagokion kitapena kalkulatu eta helaraziko dio udal bakoitzari. Kitapena kalkulatzeko, kontutan hartuko dira zerbitzuarengatik egindako hileko ordainketak, udalerririk bakoitzeko erabiltzaile kopuruaren arabera banatuko direlarik. Era honetan, logopedia zerbitzuaren kostua era proportzionalean zatituko da udal guztien artean, bakoitzaren erabiltzaile kopuruaren arabera.

Azpeitia eta Zestoako udalek, zerbitzu teknikoek emandako txostenak aintzat hartuta, eta, bere kasuan, Jarraipen Batzordean elkartu ondoren, dagokien diru ekarpena ordainduko dute 30 eguneko epean ordainagiria udaletxeko erregistroan aurkeztu denetik zenbatzen hasita.

Epe hori gaindituz gero, Azkoitiko udalak eskatu ahal izango ditu berandutze-interesak eta kobratze-kosteei dagokien kalte-ordaina, abenduaren 29ko 3/2004 Legearen xedapenetan araututakoaren arabera.

Udalen atzerapena sei hilabete baino gehiagokoa bada, Azkoitiko udalak, orobat, hitzarmena desgaitzeko eta horren ondorioz sortzen diren kalteak jasotzeko eskubidea izango du.

Zazpigarrena. Hitzarmenaren izaera eta araubidea

Hitzarmen honek administrazio izaera du. Administrazio publikoaren arteko lankidetzak hitzarmenari aplikatu beharreko antolamendu juridiko eta administratiboaren arabera interpretatu da.

Hitzarmen honek edo bere betearazpenak sor ditzaketen interpretazio arazoak Jarraipen Batzordeak ebaziko ditu, beti ere kontuan izanez urriaren 1eko 40/2015 Legeak 47 eta hurrengo artikuluetan araututakoa.

Zortzigarrena. Hitzarmenaren ondorioak eta iraupena

Hitzarmenak ez dakar alderdi jarduleek euren eskumenei uko egitea ezta eskumenei aldatzea ere. Alderdi jarduleek hitzarmena sinatuz berez sortzen diren erantzukizunak soilik onartzen dituzte.

Kontratazio-, ondareko edo beste edozein erantzukizuna eskatzeko espedienteak izapidetuko ditu Azkoitiko udalak, gainontzeko udalei audientzia emanez. Hala ere, udal bakoitzak izango du dagokion erabakia hartzeko ahalmena, bere udalerrien esparruan.

Hitzarmenak, sinatzen den unetik, alderdi jarduleak behartuko ditu eta ondorioak izango ditu.

Hitzarmenaren iraupena, 2024. urteko urtarrilaren 19ra bitartekoa izango da, data hori baita egun indarrean dagoen kontratuaren gehieneko iraupenari (balizko luzapenak barne) dagokion data.

Sexto. Cálculo y pago de aportaciones

Los Ayuntamientos de Azpeitia, Azkoitia y Zestoa financiarán el servicio de logopedia con las aportaciones que cada Ayuntamiento realice, de acuerdo con lo dispuesto en esta cláusula.

Por otra parte, para poder financiar este servicio, cada ayuntamiento impondrá una tasa a los usuarios a través de la correspondiente ordenanza fiscal. La cuantía de la tasa será fijada de forma consensuada por los ayuntamientos que suscriban el presente convenio, siendo la misma en los tres municipios.

En relación a la financiación del servicio, los tres ayuntamientos acuerdan que el ayuntamiento que haya contratado el servicio de logopedia, tan pronto como reciba el recibo mensual por la prestación del servicio, lo remitirá al resto de los ayuntamientos para que sean informados por sus servicios técnicos, para lo que dispondrán de un plazo de quince días. A continuación, el responsable municipal abonará el recibo mensual, teniendo en cuenta el plazo establecido en la legislación reguladora de la contratación en el sector público.

Las aportaciones de los ayuntamientos se materializarán de la siguiente manera: el responsable municipal calculará y remitirá trimestralmente a cada ayuntamiento la liquidación correspondiente. Para el cálculo de la liquidación se tendrán en cuenta los pagos mensuales por el servicio, distribuidos en función del número de usuarios de cada municipio. De esta forma, el coste del servicio de logopedia se dividirá de forma proporcional entre todos los ayuntamientos en función del número de usuarios de cada uno.

Los ayuntamientos de Azpeitia y Zestoa, a la vista de los informes emitidos por los servicios técnicos y, en su caso, reunidos en la Comisión de Seguimiento, abonarán la aportación económica correspondiente en el plazo de 30 días desde la presentación del recibo en el registro del Ayuntamiento.

Superado dicho plazo, el Ayuntamiento de Azkoitia podrá solicitar los intereses de demora y la indemnización correspondiente a los costes de cobro, de acuerdo con las disposiciones de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre.

En caso de que el retraso municipal sea superior a seis meses, el Ayuntamiento de Azkoitia también tendrá derecho a la resolución del convenio y a los daños y perjuicios que de ello se deriven.

Séptimo. Naturaleza y régimen del convenio

El presente convenio tiene naturaleza administrativa. La cooperación entre administraciones públicas se interpretará y desarrollará de acuerdo con el ordenamiento jurídico y administrativo aplicable a los convenios.

Los conflictos de interpretación que puedan derivarse del presente convenio o de su ejecución serán resueltos por la Comisión de Seguimiento, teniendo en cuenta lo dispuesto en los artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre.

Octava. Efectos y duración del convenio

El convenio no supone renuncia ni alteración de las competencias de las partes actuantes. Las partes actuantes solo asumen las responsabilidades que de por sí se deriven de la firma del convenio.

El Ayuntamiento de Azkoitia tramitará los expedientes de responsabilidad patrimonial o de cualquier otra naturaleza, dando audiencia al resto de Ayuntamientos. No obstante, cada ayuntamiento tendrá la potestad de tomar la decisión correspondiente en el ámbito de su municipio.

El convenio, desde el momento de su firma, será vinculante y surtirá efecto para las partes actuantes.

La duración del convenio será hasta el 19 de enero de 2024, fecha que corresponde a la duración máxima del contrato actualmente en vigor, incluidas las posibles prórrogas.

Bederatzigarrena. Hitzarmena azkentzea.

Aurreko klausulan adierazitako indarraldia bukatzeagatik, edo suntsiarazi delako, azkenduko da hitzarmena.

Alderdietakoren batek hartutako konpromisoak ez badiu betetzen, besteak ahalmena izango du konpromiso hori betetzeko agintzeko edo hitzarmena suntsiarazteko eskatzeko, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. eta 52. artikuluetan zehaztutako prozeduren bitartez.

Azkoitia, 2020ko otsailaren 27a.—Javier Zubizarreta Zubizarreta, alkatea. (1411)

Novena. Terminación del convenio.

El convenio se extinguirá por el transcurso del plazo de vigencia señalado en la cláusula anterior o por haber sido rescindido.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos adquiridos facultará a la otra para hacer cumplir dicho compromiso o solicitar la rescisión del convenio, conforme a los procedimientos definidos en los artículos 51 y 52 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre.

Azkoitia, a 27 de febrero de 2020.—El alcalde, Javier Zubizarreta Zubizarreta. (1411)